



3 OSTADAR
'31 urte elkarrekin' bazkide kanpaina abian

Abenduaren 23ra arte luza-tuko da Ostadar SKT-ren bazkide kanpaina. Herriko kirol taldeak 2015erako bazkide berriak erakarri nahi ditu, horretarako Izarra autoeskolarekin hitzarmena sinatu du eta honetan deskontuak izango dituzte bazkideek edozein motatako gidabaimena ateratzeko garaian. Horretaz gain, Gabonetan otarra zozketatuko du Ostadar SKT bazkide guztien artean.

5 GIZARTEA
'SARE' ostiralean aurkeztuko da herrian

"Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sare herritarra" da SARE. Ekainean aurkeztu zuten Donostian, eta herriz herri ari da hedatzen. Lasarte-Oriara iritsi da eta ostiralean egingo dute egitasmoaren aurkezpena, Hipodromoko zubian, 19:30ean (kultur etxeko hitzaldi aretoan, eguraldi txarra egiten bada). Hizlarietako bat Teresa Toda kazetaria izango da eta harekin hitz egin dugu.



Erakusleiho berria merkatarientzat eskaintzak.lasarte-oria.eus ataria martxan jarri du Udalak

Udalak lasarte-oria.eus ataria martxan jarri du herriko merkatariek sarean erakusleiho berri bat izan dezaten. Momentuz Aterpeako denda eta tabernen eskaintzekin osatu da eta dagoeneko herriko gainontzeko merkatariek aukera dute bertan euren eskaintzak ere txertatzeko. Ostiralean egin zuten Udaletxe berrian atari berriaren aurkezpena.



Ostiralean Udaletxean egin zuten udal ordezkari eta Aterpekoek webgune berriaren aurkezpena.

Ostiralean aurkeztu zuten udal ordezkariak Aterpeako kideekin batera lasarte-oria.eus atari berria.

Pablo Barrio alkateak azaldu zuenez, herriko merkataritxikientzat "aukera berri bat zabaltzen da atari honekin". Ohiko erakusleihoez gain, "sarean euren lekua izango dute gure herriko dendari eta ostalariek baita edozein motako zerbitzua eskaintzen duten enpresa txikiek ere. Denda handiek tresna guztiak dituzte euren produktuak sarean ere ezagutzera eman eta saltzeko; horregatik txikien ahultasun horren aurrean, urrats bat eman nahi izan du Udalak atari honen sorrerarekin".


Tratu On Bat markaren baitan kokatzen da proiektua eta momentuz Aterpeako denda eta tabernekin osatu dute eskaintza webgune berria Ivan Manzanok azaldu moduan. "Webgunea martxan dago eta hasiera batean Aterpeako bazkideekin egin dugu lan merkatarien beharrak

zeintzuk ziren ikusi eta garen egokia egiteko. Hurrengo pausoa da gainontzeko dendek ere parte hartzea". Horretarako atal berezi bat dago webgunean "sustatu zure enpresa" formulario bat bete eta Manzano bera jarriko da harremanetan interesa duenarekin. 943 37 61 83 telefonoan edo i.manzano@lasarte-oria.org helbidean informazio gehiago edo zalantzak argitu ditzakete merkatariek.

Eskaintzak

Atarian sartu eta eskaintza guztiak agertzen dira zerrendan. Hauen gainean klikatuta, produktuaren ezaugarriak, eskaintzaren iraupena, salneurria eta dendaren kokapena mapa baten bidez azaltzen zaio erabiltzaileari, besteak beste. Informazio gehiago nahi izatekotan, dendaren informazio laburra ere aurki daiteke.

"Web ataria erakusleiho bat da, ezin da zuzenean erosketarik egin. Herriko dendek dutena ikus daiteke bertara



Hau da eskaintzak.lasarte-oria.eus atari berriaren itxura.

joan gabe baina erosteko interesa izatekotan, dendara hurbildu behar da". Gertuko harremana eta dendariak eskaintzen duten aholkularitza azpimarratu zituen alkateak herriko merkataritza ostalarien ezaugarri gisa.

Aterpeako kideak bestalde, oso pozik agertu ziren egindako elkarlanarekin: "Garai batean gure erakusle-

hoak nola apaindu eta erakargarri egin ikasi behar genuen bezeroak gurera gerturatzeko, orain teknologia berrietara egokitu behar dugu. Erosteko ohiturak aldatu egin dira eta txikiak ere gure lekua egin behar dugu sarean. Produktu, zerbitzu onak ditugu Lasarte-Orian bertan eta horiek erakutsi behar zaizkio herritarri".

ABENDUAK 9-TIK 30-ERA

ATERPEA EROSI ETA LORTU ZURE SORTA

Ekain Liburudenda • Ormazabal Loradenda • Alda complementos • Zapatería Iturbe
Bazar Abreu • Mercería Olmi • Mertzzeria Urruzola • Nogues Confecciones • Ventanas Isu
Electricidad Arregui • Orbela Ekodenda • Optica Lizarri • Bar Yolanda • Pub Usoak
Lasarte System • Ventanas Alcar • Yoigo • Donna Boutique • Alba Moda
Santana Informática • Arkupe Taberna • Izarra Bitzitegia • Ferretería Suko
Librería Zumaburu • Bideo Lagunak • Lentzeria Maya • Cafetería Buenetxea • Bar Andatza



AZOKA

Herriko parkeak berritzen ari da Udala

Dorre parkean, Ahateen Parkea bezala ezagutzen denean, haurrentzako jolas berriak jarri dituzte

Herriko zenbait haur parke berritzen ari da Udala. Dorre Parkea, Ahateen Parkea izenez ere ezagutua, izan da horietako bat. Dagoeneko lanak bukatu ditu Udalak, eta itxura berria du parke horrek orain. Segurtasun lur berria jarri du, eta baita haurrentzako jolas berriak ere. 41.400 euro inbertitu ditu berritze lan horietan. Bruneteko parkea ere berritu du, eta Tximistarretan beste bat egin du.

TXINTXARRI

Dorre Parkearen egoera zein zen ikusirik, Udaleko Obra eta Zerbitzuen departamenduak parkea berritzea erabaki du.

Haurrentzako jolas berriak jarri dituzte eta aurretik zeuden beste batzuk eraberritu egin dituzte. Azaro hasieran hasi ziren parke hori eraberritzeko lanak eta, ondorioz, pare bat astez itxita egon zen Dorre parkea.

Haurren jolasak denboraren eraginez zahartu eta matxuratu egiten dira. Dorre parkearen kasuan dagoeneko behin baino gehiagotan berritu dituzte joko horiek, margo-

tuz edo konponketa txikiak eginez. Azaroan egindako lanen ostean, berriro berrituak izan dira Dorre edo Ahateen Parkeko haurren jolasak.

Lasarte-Oriako Udalak inbertsio garrantzitsu bat burutzea erabaki du; 41.400 euro gastatu ditu parkeen berritze lan horiek egiten.

Egin diren obrak honakoak izan dira: segurtasun lur berria jarriko da, haurrentzako jolas berriak jarriko dira, orain arteko "manttangorri" autobusa bezalako jolasak berritu egingo dira eta parkeko lur guztia garbituko da.

Herriko beste parke batzuk ere berritu ditu Udalak, Brunet eta Tximistarreta kasu.



Dorre Parkea, Ahateen Parkea izenez ere ezagutua izan da Udalak berritu duen parkeetako bat.



Brunet Parkeak itxura eta haur jolas berriak ditu orain.

PSEren kezka Sasoetako lizitazioen inguruan EAJren 'Zurekin' aldizkaria

Talde sozialistak ezinegona agertu du Lasarte-Oriako Udalak lizitazio prozesua hasi duelako San Martzial eta Uzturre plazetan: "Harrituta gaude. Sasoetako bizilagunek espazio berriak nola antolatu erabakitzeke antolatutako parte-hartze prozesua amaitu gabe dagoela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dituzte lizitaziorako oinarri-agiriak".

Jesus Zaballos bozeramaille sozialistak Bilduren "presa" salatu du zeregin horretan: "Zertarako gastatzen dugu dirua parte-hartze prozesuetan, Bilduk herritarren iritzia jaramonik egiten ez badio?".

PSE-EEK "helburu elektoral" ikusten du obra hauen lizitazioan: "Konturatu dira denbora gehiago behar izate-



Sasoeta auzoko Uzturre plaza.

kotan, udal-hauteskundeak baino lehen ezingo litzuketela eraistek egin, beraz, orain korrika eta presaka ari dira; enpresek euren proiektuak aurkeztu behar dituztelako eta administrazioak adjudikazio prozesua egin behar duelako obrari ekin aurretik".

Zentzu horretan, Jesus Zaballos bozeramaille sozialistak uste du lizitazioa joan den apirilean ematea zitekeela egokiena, aurrekontuak onartzearekin batera. Hala, "dirua, denbora eta frustrazioa" aurreztuko liritekeela uste du PSE-EEK.

EAJren "Zurekin" aldizkariaren zenbaki berria Lasarte-Oriako etxe guztietara zabaltzen hasia da dagoeneko. "EAJ herriko eragileekin elkarrizketan" izan da oraingo honetan aldizkariaren gai nagusia. Izan ere EAJk landinamika bat jarri du martxan herritarrekin eta gizarte eragileekin harremanetan jarri, eta Lasarte-Oriaren "etorkizuneko diseinu estrategikoa" egiten lagunduko duten proposamenak jaso, partekatu eta lantzeko helburuarekin.


"Ekimen honekin herritarrengana gerturatu nahi dugu, haien zain egon gabe. Harreman estiloa markatu nahi dugu, jarrera proaktibo eta komunikatiboarekin", adierazi dute. Enplegua eta ekonomiari buruz, kirolari buruz eta

ongizateari buruz idatzi dute. EAJko talde batek, udaletxean zinegotzi ere baden Estitxu Alkorta alkategaiarekin batera, Lasarte-Oriako eragile sozial eta ekonomiko desberdinekin hainbat kontaktu egin ditu: "Ez digu axola zein den beraien ideologia politikoa. Uste dugu politika egitea denontzat gobernatzea dela, eta pertsona eta kolektibo guztiek izan behar dutela ekarpenak egiteko modua".

Jeltzaleek martxan jarri duten lan dinamika horren berri emateaz gain, pil-pilean dauden zenbait gairen inguruko informazioa ere helarazi zenbaki honetan, hala nola, 2015eko Ordenantza Fiskalen onarpenaren gatazka edota Bailarako Garapen Agentziaren proiektuari buruzkoa.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Jon Altuna
E. Iñigo Gonzalez
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Jone M. Hernandez,
Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu
Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

OSTADAR

'31 urte elkarrekin'

Ostadarrek hasi du 2015eko bazkide kanpaina

Abenduaren 23ra arte luzatuko da Ostadarren kanpaina: "Zure laguntza bihotzez eskertzen dugu eta gurekin jarraitzea animatzen zaitugu, kirol egitasmo hau gauzatu ahal izateko zure diru-laguntza ezinbestekoa baita", adierazi du klubak.



Bazkide txartel berria atera du Ostadarrek.

TXINTXARRI

Bazkideetza kuota helbideratuta dutenei urtarrilaren 9an kobratuko dietela jakinarazi du klubak eta datuak berriak aldatu nahi izanez gero, abenduaren 19a baino lehen egin behar dela gogorazten dute. Aldaketak Ostadarreko egoitzan egin daitezke, bertara deituta (943-360433) edo admin@ostadarskt.org helbidera mezu bat bidalita.

Aurtengoak berrikuntza bat dakar gainera. Izarra autoeskolarekin akordio bat sinatu du Ostadarrek eta ondorioz, klubeko bazkide direnek deskontuak izango

dituzte gidabaimen modalitate guztietan.

Lizentziak tramitatzen

Bestalde, mendiko eta zikloturisten lizentziak tramitatzen ditu Ostadarrek. Urtarrilaren 1ean federatuta egon nahi duenak tramitazioa abenduaren 19a baino lehenago egin behar duela gogorazten dute.

Otarra eta loteria

Urtero bezala, otar bat zozkatuko dute bazkide guztien artean. Adi beraz abenduaren 22an Ostadarreko atean eta www.ostadarskt.org webgunean jarriko delako irabazlearen izena. Bestetik,

Gabonetako loteria hartu du Ostadarrek aurten ere, 42.871 zenbakia. Erosi nahi duenak bulegoan izango du salgai.

Helbide elektronikoak

Bazkideekin harreman "zuzenagoa, azkarragoa eta merkeagoa" izan asmoz, bazkideen helbide elektronikoak behar ditu Ostadarrek. Horregatik, klubaren informazioa korreo elektronikoz jaso nahi duenak admin@ostadarskt.org helbidera mezu bat bidali dezala eskatu dute mesedez.

Azkenik, bulegoa abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra arte itxita egongo dela jakinarazi dute.

POLITIKA

Sorturen kontzentrazioa presoak etxeratzeko aldarriarekin

Lasarte-Oriako Sortuk elkarretaratzea burutuko du bihar Okendo plazan arratsaldeko 19.30etan hasita. "Espetxe politika kriminala stop. Presoak etxera" lemapean bilduko dira eta herri-tarrak bertan izatera gonbidatu dituzte.

BIZILAGUNAK

'La Esperanza' auzo elkartearen urteroko bilera

'La Esperanza' auzo elkarteak bizilagun bazkideen eta administrazioaren bilera deitu du urtero moduan. Bihar egingo da bilera, lehen deialdia arratsaldeko 18:30ean izango da eta bigarrena berriz, arratsaldeko 19:00etan.

Bost puntu landuko dituzte eguneko gai-zerrendan: 1. Aurreko aktaren irakurketa eta onarpena 2. Ikasturtearen kudeaketaren balantzea 3. Herri autobusa, Manttangorri zerbitzuari buruzko informazioa 4. Zuzendaritza Batzorde berrearen onarpena 5. Galderak eta erreguak.

AEK

'Zer da zuretzat euskara?' galderari erantzun zioten Munteriko ikasleek

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna zela-eta, ikasleekin ariketatxo bat egin zuten AEKko ikasleek. "Zer da zuretzat euskara?" galderari erantzun behar izan zioten bi lerrotan, paragrafo labur batean asko jota. Galdera egin ondoren, ikasleek eman zituzten erantzun guztietatik bat aukeratu zuten denen artean. Hauxe da: "Nire ama-hizkuntza da euskara. Nire lagun, ahaide eta senideekin erabiltzen dudana eta bizitzako atal guztietan erabili nahiko nukeena". (Xabi)

AEKren ekimenaz gain, izan ziren herritarren artean ekin-tza gehiago. Esate baterako, haurren agur lehiaketa egin zuten Gazte klubeko haurrek Manuel Lekuonako aretoan eta txikienek berriz, Martin Bertsorekin saioa izan zuten Amaraun Ludotekan.

Errigoraren 149 saski saldu dira herrian

Errigorak guztira 12.000 saski inguru banatu ditu Euskal Herrian eta horri esker, 151.000 euro bideratuko dira Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara.

2012an egin zen lehenengo kanpainan 1.500 saski banatu ziren, 2013an 8.000 izan ziren. "Aurtengoan, koxka bat harago heldu gara: 12.000 saski! Iaz 500 banaketa-gune izatetik, aurten Euskal Herriko lurralde guztian zehar 700 banaketa-gune izatera heldu gara. Guztira, ia 200 herri ingurutan egon da presente kanpaina, eta herri gehiagotara heltzen ari den heinean, emaitzak ere haziz doaz. Eskerrik asko, banaketa-gune-



Hainbat herritarrek lagundu zuten Nafarroako produktuak kaxetan sartzeko.

tan zerrendak kudeatzen edo bestelako edozein lanetan aritu zireten guzti-guztioi. Kanpaina honen arrakasta, zeuek jarritako ahalegin eta ilusioari esker izan da" esan dute sustatzaileek.

Lasarte-Oriak ere jarri du bere aletxoak, herrian 149

saski eskatu baitira aurten. Iaz 100 inguru izan ziren beraz, gurean ere babes gehitu du ekimenak.

#EuskarariPUZKA ekimenaren bideoa helbide honetan: <http://www.youtube.com/watch?v=yYUmzLEDVMO>.

Udalaren inkestak

Bando bat igorri du Lasarte-Oriako Udalak, herritarrei jakinarazteko inkesta batzuk ari dela burutzen, aztertze herri-tarren merkataritza ohiturak zeintzuk diren.

Herritarren iritzia jasotzeko, Siadeco enpresaren bitartez ari da Udala inkestak egiten. Enpresa horretako inkestatzaileak etxe etxe ari dira galderak egiten lasarteoriatarrei.

Abendu bukaerara arte

Udalak igorritako bandoan jakinarazi du inkesta horiek "gutxienez" abendu bukaerara arte egingo dituela Siadeco enpresak, etxe etxe bisitak egingez.

Udalak "zintzotasuna" eskatu die herritarrei: "Lasarteoriatarrei eskatzen diegu modu zintzo batean erantzuteko inkestatzaileek egindako galderei".

"Orain egiten ari garen inkesta hauen erantzunak gure herriko komertzioa indartzeko oinarri bat izango dira; etorkizuneko sektore hori indartzeko egingo ditugun ekintzak prestatzeko kontutan hartuko ditugu", jakinarazi du Udalak.

Inkesten ez da herriko komertzioa bultzatzeko Udalak egin duen ekimen bakarra. Tratu on bat markaren barnean 2015eko egutegia martxan da eta baita webgune propioa ere.

1.711

Enpresa berri



Zuri esker

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



Alboka eta Ertizkaren doinuak

Brigitarren komentuan eskaini dituzte emanaldiak, asteburuan zehar

Musika izan zen asteburuko protagonistetako bat herria, Brigitarren komentuan batez ere. Gabonetako kontzertua eskaini zuen herriko Alboka abesbatzak atzo eguerdian. Ostiral arratsaldean berriz, Danok Kide elkarteak X. Musika topaketak egin zituen. Añorgako Ertizka otxoteak eskaini zuen emanaldia, komentuan baita ere. Alboka eta Ertizkaren doinuak Brigitarrean.

TXINTXARRI

Gabonetako kontzertua eskaini zuen atzo eguerdian herriko Alboka abesbatzak, Brigitarren komentuan.

Kontzertua ikustera joan ziren herritarrei zortzi piezaz osatutako errepertorioa eskaini zien Albokak. Montse Latorrek egin zituen zuzendari lanak; Amaia Dorronsorok pianoa jo zuen eta Alba Carreterok berriz, biolina.

Egitarau zabala eta oparoa prestatu eta taularatu zuen Albokak: Euskal Herriko ('Jai Onak') eta Andaluziako ('Tres villancicos andaluces') abesti herrikoiak eta hainbat konpositoreren piezak, besteak beste.

Ertizka otxotea ostiralean

Ostiral arratsaldean Brigitarren komentura hurbildu ziren herritarrek Añorgatik etorritako Ertizka otxotearen emanaldiaz gozatu zuten. Danok Kide elkarteak antolatutako X. Musika Topaketen baitako emanaldia izan zen joan den asteko ostiral arratsaldekoa.

Ramon Berazaren zuzendaritzapean, bi zatitan banatutako emanaldia eskaini zuen otxoteak. Errepertorio zabala erakutsi zuen Ertizkak, eta herritarrek hainbat estilotako abestiak entzun zituzten: Franz Biebl-en 'Ave Maria' abesti erlijiosoa eta Madinaren 'Beti eskamak kentzen' pieza herrikoia, besteak beste. Txalo zaparrada ozenak entzun ziren Brigitarrean.



Emanaldiak eskaini dituzte asteburuan herriko Alboka abesbatzak (goian) eta Añorgako Ertizka otxoteak (behean).

Aurtengo Santo Tomas jaiko postuak

Igande honetan itxura berezia hartuko du Okendo plazak, Santo Tomas jaia dela eta. Taloak, txistorra, gaztainak eta txerria bezain ohikoak izaten dira Okendo plazan egun osoan zehar jartzen diren postuak.

Aurtengo Santo Tomasetan sei postu jarriko dituzte guztira Okendon. Jaiaren antolatzailer den Ttakun Kultur Elkarteak taloak egin eta saltzeko postu bat jarriko du.

Uztaro kooperatibak ere jarriko du bere postua, lehenengo urtean bezala. Egitasmoari buruz informatu ahalko dira herritarrak, eta salda hartzeko aukera ere edukiko dute.



Taloak ez dira faltako igande honetan.

Alboka Abesbatza eta Lasarte-Usurbil institutuko batxiler 2. mailako ikasleak ere plazan egongo dira, txis-

torra pintxoak saltzen. Beste bi postuetan bitxiak, gantxiloa eta azukre-kotoizko tartak topatuko dituzte herritarrek.

Ondo ibiliren balorazioa



Ebaluazio-bilera bat antolatu du 'Ondo ibili' taldeak, iraila bukaeran egiten hasi ziren ostiralereko ibilaldiak nola joan diren aztertzeko.

Etzi egingo dute bilera hori, Biyak Bat nagusien elkartearekin, 11:00etan. Interesaduen herritar orori luzatu dio

gonbidapena Ondo ibili taldeak.

Duela hiru urte sortu zen egitasmoa, herriko adineko pertsonen ariketa egiteko eta bide osasungarriak bultzatzeko helburuz. Iraila bukaeran talde bat osatu zuten, ibilaldiak egiteko herrian zehar.

Mugi txartelaren erabiltzaileak

%64



Zuri esker

garraio publikoa gipuzkoarren %64ren onurarako da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa
BERRIA

Herriz herri hedatzen ari den sarea

Ostiralean aurkeztuko dute SARE egitasmoa Lasarte-Orian, Hipodromoko zubian, 19:30ean

"Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sare herritarra" da SARE. Ekainaren 15ean aurkeztu zuten Donostian, eta herriz herri ari da hedatzen ordu-tik. Lasarte-Oriara ere iritsi da sarea; ostiral honetan egingo dute egitasmoaren aurkezpena, Hipodromoko zubian, 19:30ean (kultur etxeko hitzaldi aretoan, eguraldi txarra egiten badu). Hizlarietako bat Teresa Toda kazetaria izango da; harekin hitz egin du Txintxarrik.

TXINTXARRI

Gogoeta eta entzute prozesu baten ostean sortu zen SARE euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sare herritarra. Egitasmoaren erronka orokorra euskal preso eta iheslariak Euskal Herrian izatea da, eta dispersio politikaren amaiera eskatzea.

Ekainaren 15ean aurkeztu zuten egitasmoa, Donostian. Orduz geroztik, herriz herri taldeak ari dira sortzen etengabe. Lasarte-Orian ere sortuko dute taldea.

Ostiral honetan izango da aurkezpena, 19:30ean. Hipodromoko zubian hasiko da ekitaldia, eta Okendo plazan bukatu. Tartean, orotariko ekintzak prestatu dituzte: musika, dantza, hitzaldia... Ekintza denak, antolatzaileek azaldu dutenez, "lehen unetik herritarren berotasuna" jaso dezan SAREk. "Herritarren parte hartzea aurkezpen egunetik sustatu nahi dugu". Era berean, antolatzaileek jakinarazi dute ekitaldia Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan egingo dutela, eguraldi txarra egiten badu.

Hipodromoko zubian zein hitzaldi aretoan, Teresa Toda kazetaria izango da aurkezpen ekitaldiko hizlari nagusia. Berarekin hitz egin du Txintxarrik, Sare egitasmoaren inguruko xehetasun gehiago ezagutzeko: proiektuaren jatorria, erronkak, herritarrek edukiko duten papera...

Behar bati erantzunez

Joan den urtean Bilbon egin zen manifestazioa izan zen SAREren mugarrira, Teresa Todak zehaztu duenez: "Egun horretako manifestazio erraldoian argi geratu zen euskal jendarte oso zabaldua zegoela nahi eta behar bat: euskal preso, iheslari eta euren senideek pairatzen duten eskubideen urraketa larriari aurre egitea".

"Behar hori erantzuteko ezinbestekoa da dispersio politikarekin amaitzea", azaldu du Todak. "Pentsaera desberdinetako lagun batzuk bildu ginen; entzute eta gogoeta prozesu labur baten ostean aurkeztu genuen SARE egitasmoa, ekainaren 15ean".

SAREren oinarritzko planteamenduari buruz ere hitz egin du Todak. Nabarmendu du egitasmoaren aldarrikapenak ez dagozkiola "ezker abertzaleari soilik", eta ez dela "kontu ideologiko" bat. "Gai horiek Giza Eskubiden auziak dira; horrela hartu beharko genituzke Euskal Herrian, bakoitzaren kontu politikoak alde batera utzita".

Une honetako erronkak

Hilabete batzuk badaramatzate lanean beraz SARE egitasmoa osatzen dutenek. Erronka nagusia "euskal presoak Euskal Herrian izatea" da, Todak azpimarratu duenez. Horrez gain, egitasmoak baditu berehalako beste bi: urtarilaren 10ean Bilbon egingo den manifestazioa antolatzea eta 'Dispersioaren



SAREk agerraldia egin zuen ostiralean Donostian, urtarilaren 10eko manifestazioari buruz xehetasunak emateko.

SARE.EUS

Liburua' izeneko liburuaren banaketa.

"Urtarilean Bilbon egingo dugun mobilizazioan mezu argi bat zabalduko dugu mundura", iragarri du Todak. *Euskal presoak Euskal Herria NOW* (orain) izango da manifestazioaren leloa.

Dispersioaren Liburua "tresna bat" da, "dispersioak eragiten duen sufrimendua" erakusteko politika horren "benetako eraginak gertutik ezagutzen ez" dituztenei.

Manifestazioa eta liburua eskutik lotuta doaz, urtarilaren 10ean "hauspotu" egingo baita liburu horren banaketa, Todak aurreratu duenez. "Liburua mugitu egin behar dugu, ez da etxean edukitzea. 500.000 ale jarri nahi ditugu zirkulazioan, bai formatu tradizionalen zein digitalen".

Herriz herriko lana

Erronka horiei bizkar eman gabe, SARE egitasmoa herriz herri hedatzen ari da, erritmo azkarrean gainera. "Azkar ari da hedatzen sarea; seinale ona da hori, esan nahi du prest dagoela jendea, ezarri-



Teresa Toda izango da hizlari Lasarte-Orian egingo den aurkezpenean, ostiralean.

tako helburuen alde modu antolatu batean lan egiteko".

"Antolatua" hitza erabili du Todak, baina esan du "herritarren ondasun bat" dela SARE, "horizontala". Tokiko egitasmoak "modu askotan" hasi dira lanean, "irudimen handiarekin".

Herritarren parte-hartzea "ezinbestekoa" da SARE aurrera eramateko, Todak

adierazi duenez: "Herritarrik gabe, honek ez luke zentzurik izango. Eguneroko jardunaren bidez, kontzientzia kolektiboa astindu nahi du SAREk, aktibaziora igarotzeko; ahalegin eta indarrak norabide berean jarrita, Espainiako Gobernuaren mendeku harresia zulatzen joango gara, presoak etxera ekarri arte".



4.784

Pertsonentzako laguntza sozialak

Zuri esker

Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



ESKU-PILOTA.-

Ikuskizuna garaile

Michelingo frontoiko harmailak bete zituen Xirimiri elkarteak antolatutako ekitaldiak

Lasarte-Orian Mikel Goñi Oronozko pilotaria egunero ikusteko aukerarik ez da izaten. Hori dela eta, herritar ugari hurbildu ziren larunbat arratsaldean Michelingo frontoira, Xirimiri elkarteari babesa emateko antolatutako esku-pilota jaialdiaz gozatzerako. Guztien gainera, ikuskizuna izan zen larunbat arratsaldeko garailea.

IGNIGO GONZALEZ

Egun handia izan zen larunbatekoa herriko pilotazaleentzat. Gutxitan ikusi da Michelingo frontoia horren bete. Ez zen gutxiagorako, Oronozko Mikel Goñi handiak estreinakoz jokatu baitzuen herrian.

Partidu bat eta garaipen bat Mikel Goñik eta Aitor Gorrotxategi hernaniarrak osatutako bikotearentzat. Garaipen sufritua, hori bai. Axier Arteaga eta Mikel Elola herriko pilotariak gogotik borrokatu zuten, nahiz eta azkenean ezin izan zuten irabazi. Amaieran, 17-22 Goñi eta Gorrotxategirentzat.

Horren aurretik, herriko pilotari Jon Pello Artetxek eta Ander Katalina usurbildarrak jokatu zuten, lau t'erdian. Ikuskizun polita eta bizia eskaini zuten bi pilotariak, eta

Artetxerentzat izan zen garaipena azkenean, 15-22.

Esku-pilota maila altua kantxan, eta giro ezin hobea harmailetan. Zaleek arratsalde polita pasa zuten partiduak ikusten. Ederki asko erakutsi zuten goi-mailako pilota partidez gozatzeko gogoaz zutela; animoak eta txalo zaparradak presente egon ziren frontoian, arratsalde osoan zehar.

Goñi %100ean

Pilotari oso ona izateaz gain, izaera sutsua dauka Mikel Goñik. Larunbateko partiduan ere erakutsi zuen: pare bat aldiz hurbildu zen epaile lanak egin zituen Jose Felix Solanorengana, hark hartutako zenbait erabakirengatik kontu eske. Errepertorio osoa erakutsi zuen Goñik: protestak, haserre keinuak, biraoren bat... Goñi %100ean.

Baina Oronozko aurrelariak erakutsi zuen baita ere



Mikel Goñi eta Axier Arteaga, maisua eta ikaslea aurrez aurre larunbat arratsaldean.

zergatik den horren pilotari ona. Ezker gantxoak, dejadak, sake zitala... Goñi %100ean, esparru horretan ere.

Maisu nafarrak Lasarte-Oriako ikaslearekin neurtu zituen indarrak. Nota onak ateratzen dituen horietako batekin. Arteaga ez zen inola ere kikildu, eta Michelinen beste behin erakutsi zuen urrutira iristeko gaitasuna baduela. Tanto ederrak egin zituen hark ere, ikusleak eserlekuetatik behin baino gehiagotan altzaraziz.



Herritar ugari hurbildu ziren Michelingo frontoira.

JUDO.-

LOKEko judokak Valladoliden

Kirolen LOKEko judokak Espainiako Infantilen Kopan lehiatu zuten joan den asteburuan. Valladolidera bidaiatu zuten Ander Garridok, Yeray Mendibek eta Alex Saletak. Gorka Aristegi entrenatzaileak adierazitakoaren arabera, txapelketa "handia" egin zuten hirurek. Bereziki Alex Saletak eskuratu zuen emaitza ona, brontzezko medaila kolkoratuta egin baitzuen Lasarte-Oriarainoko itzulerako bidea.

Hiru konbate egin zituen Saletak. Lehena irabazi egin zuen Gaztela-Leongo judoka baten aurka, bigarrena galdu madrildar baten aurka eta podiumeko hirugarren koska zapaltzeko borrokan, beste madrildar bat garaitu zuen.

Ander Garridok bi borroka egin zituen, lehena irabazi egin zuen eta bigarrena galdu. Yeray Mendibek lehiatutako borrokaldia galdu egin zuen.



Espainiako Kopan parte-hartu duten Saleta, Garrido eta Mendibe infantilak.

Bestalde, atzo goizean Hernanin eskola kiroleko jardunaldia izan zen alebin eta infantil mailetan.

Orain, Gabonetan etenaldi txiki bat egin eta urtarilaren 17an itzuliko dira lehiaria infantil eta jubenilak, Tortosan (Tarragonan), Espainiako Kopan.

Juniorrek beste jardunaldi bat izango dute Xixonen eta otsailaren 14an infantil eta kadeteek lehiaketa.

Seniorrei dagokienez, atsedean luzeagoa hartuko dute udaberrira arte, apirilaren Espainiako txapelketara sailkatzeko sektoreko borrokei ekin aurretik.

UDAL INSTALAZIOAK.-

2015. urtean kirol instalazioak epe-luzera alokatzeko aukera

Kirolen Udal Zerbitzuak 2015. urtean herriko kirol instalakuntzak epe luzera alokatzeko aukera eskaintzeko asmoa du. Kirol Guneko pilotalekua, tenis pistak eta pista balioaniztuna, baita padel pista ere urte osoan zehar (uztaila eta abuztua izan ezik) alokatu daitezke zenbait ordu eta egunetan.

Eskainiko diren orduak eta erabiliko diren arauak ezagutu nahi dituztenek dagokien instalazioan kontsulta egin dezakete, Michelingo kirol-gunean edota Udal kiroldegian. Interesa duten erabiltzaileek izena, abizena, telefono zenbakia, abonua zenbakia eta eskatutako eguna eta ordua instalazioaren harreran eman behar dituzte ostegunera bitartean.

Orduen banaketa zozketa bidez egingo da ostiralean, 18:00etan, Udal Kiroldegian.



Padel eta tenis pistak, pista balioaniztuna eta pilotalekua alokatu ahalko dira.

Agenda

Asteazkena, Manuel Lekuona kultur-etxean 19:00etan



Musika eskolako emanaldia

Udal Musika Eskolako ikasleek Gabonetako Kontzertua eskainiko dute asteazkenean Manuel Lekuonan. Orain arte ikasitakoa erakutsiko dute musikari gazteek. Gabonetako giroan murgilduko dira bertaratutakoak instrumentu ezberdinekin eskainiko dituzte Gabon kanten laguntzarekin. Emanaldia ohi bezala, irekia izango da.

nua" erakusketa ikusgai izango da kultur-etxeko erakusketa aretoan.

JALGI KAFE ANTZOKIA

Abenduan zehar

El Estudio del Pintor-eko ikasleen margolanak ikusgai.

EMAKUMEEN ZENTROAN

Abenduan zehar

"Ciudadanía por la igualdad" elkar-tearen eskutik "Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan egiak eta gezurrak" erakusketa dago ikusgai.

Ikastaroa

EMAKUMEEN ZENTROAN

Ostirala 19, 18:00etan

"Aiten sexualitatearen inguruan haurdunaldi-erditze aurretik eta ondoren" ikastaroa. Jaioberriarekin bikoteak erotismoa eta sexualitatea berriz planteatu behar du. Nola errotizatu berriro bikotea? Parte hartze-ko aurrez izena eman behar da emakumeen zentroan, 943 36 39 58 edo lasarteasexoria@lasarte-oria.org.

Lasarte-Oria

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 17, 18:00etan

Kontukantoi herriko ipuin kontalarien saioa izango da. Honakoa 6, 7 eta 8 urteko umeei zuzenduta egongo da. Doan.

Musika

TRUMOI TABERNA

Abenduak 20 20:30ean

Rip taldeari omenaldia egingo diote herriko gazte batzuk emanaldi berezian.

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Abenduak 26 eta 27, 20:00etatik

II. Fabrimusikala musika jaialdia egingo da Elebeltzen. Julieta La Chula Potra, Gadafiste brothers, Arramazka, Luz de Putas, Kaxianoren alabak, Petti eta Hitzartu taldeak dira orain arte parte hartzea baieztatu dutenak.

Azoka

OKENDO PLAZA

Igandea 21, 11:00etan

Okendon Santo Tomas Azoka egingo du ohi bezala Ttakunek. 11:30ean haurren erromeria, 12:00etan bertsolariak, 12:30ean Xumela,

12:45ean erromeria egingo da eta honetan parte hartuko dute Kukuka, Plaza Dantza, Erketz, Ttiriki Ttrraka eta herriko txistulariak. Hauen ostean, musikarekin jai giroak jarraituko du 16:00ak arte. Haurren talo ikastaroa egingo da azokaren baitan eta Beterriko talogile berezien bisita ere izango da. Txistorra, taloak, gaztainak eta txerria ez dira faltako. Plazan hainbat postu izango dira ere.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 12tik 19ra 18:00etan

Xabier Amonarrizen "Egurra eta Tor-

Donostia

Musika

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Abenduak 22, 20:00etan

'Urteagako ahotsak' emanaldian parte hartuko du herriko SuBerri akordeoi taldeak, Donosti Ereski abesbatza eta Koruko Ama Birjinaren eskolarekin batera.

Herritarren txokoa

Korrikaren materiala

Martxoaren 19tik 29ra egingo da 2015ean Korrika. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Munterri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek.

Herritarrak euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko ohiko ordutegian.

Danok Kideren jaiotza lehiaketa

Danok Kide elkarteak, aurten ere, jaiotzen lehiaketa antolatu du. Hauek dira parte hartzeko oinarriak: jaiotzak gehienez, 80x60 zm-ko neurriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko.

Jaiotzarekin gutun-azal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzita eman behar da.

Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 19 eta 20a izango dira. Danok

Kide elkartearen egoitzan Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 18:00etatik 20:00etara. Abenduaren 28an sari banaketa egingo da.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota: hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek,

hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858

txintzarri@txintzarri.info

Birziklatze tasa

%42



Zuri esker

Gipuzkoa hondakinen %42 birziklatzen ari da eta 2016an %60ra iritsiko da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa BERRIA

Antonio Merceroren omenez

Musikariaren omenez kontzertua eskaini zuten atzo Usurbilgo San Salvador parrokian

Kontzertu bat eskaintzea baino hoberik ez dago musikari bat omentzeko. Hori egin zuten atzo, Usurbilgo San Salvador parrokian. Antonio Mercero (1910-1973) konpositore herritarra izan zen omendua. Merceroren ondare musikal zabala jaso du Lasarte-Oriak, eta baita haren familiak ere, Antonioren biloba Ainhoa Merzero sopranoa izan baitzen atzoko emanaldiko protagonistetako bat. Irakaslea da Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioan; haren ikasleek ere hartu zuten parte kontzertuan, Urmaiz eta Goratzar abesbatzekin batera.

TXINTXARRI

Kontzertu-omenaldia eskaini zioten atzo Usurbilgo San Salvador parrokian Antonio Mercero herriko musikaria zenari (Lasarte, 1910-Usurbil, 1973).

Antonio Mercerori eskaintako bertso-sorta batekin hasi zen emanaldia, kontzertuan gero parte hartu duten abesbatza eta kontserbatorioko kide guztiak dagoeneko parrokian zirela, denak elkarren ondoan. Txalo artean bukatu zen kontzertuko lehen une hunkigarria.

Bertsoak bukatu eta berehala parrokiaren goiko pisura begira jarri ziren ikusleak, bertatik hasi baitzen abesten Antonioren biloba Ainhoa. Horiek biak izan ziren nolabait atzo

eguerdiko kontzertu-omenaldiari sarrera egiteko eskaintako bi ekitaldiak.

Egitarau zabala

Hainbat kanta entzun ahal izan ziren atzo Usurbilgo parrokian. Donostiako Goratzar eta Ormaiztegiako Urmaiz abesbatzek eta Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioko ikasleek eskaini zituzten egitarauko kantuak.

Konpositore euskaldunen zein atzerritarren hainbat obra abestuz omendu zuten atzo Antonio Mercero. Euskarazko kantak izan ziren nagusi erreperitorioan: 'Zurekin ama', 'Zuretzat gure bihotza', 'Beti eskama kentzen', 'Mari Domingi', 'Ator ator mutil' eta beste hainbat. Koordinazioa



Irudian, Antonio Merceroren omenaldi-kontzertuan parte hartu zuten pertsona guztiak.

eta erritmoa maisuki mantendu zituzten abeslariak kontzertu osoan zehar, eta ikusleengandik txalo zaparrada luzeak jaso zituzten ordaintan.

Musikari emandako bizia

Honela zioen atzo abestutako bertsoen zati batek: *'Musikarekin estaltzen zuen garaiko hainbat gabezia; musikarekin*

alaitzen zuen inguruko tristetia; musikarekin gaitzen zuen euskarak zuen hesia'.

Bertsoak esaten duen lez, musikaren bitartez utzi zituen atzean Antonio Mercero Gerra Zibileko urte latzak. Gartzelaratu izan zen, hiltzera kondenatua ere bai, nahiz eta azkenean indultatua izan zen. Derrigorrezko lanak ere egin behar izan zituen.

1943an etorri zen Lasarte-Oriara eta San Pedro parrokiako organistia hartu zuen bere gain, lan handia eginez parrokiako koruarekin. 'Nuestra señora del consuelo' korua sortu zuen 1955ean, eta hainbat urtetan egin zituen zuzendari lanak. Arrakasta lortu zuen, hainbat urtetan irabaziz Tolosako eskualde lehiaketak.

Mari Domingi eta Xixuko prest 24ko desfile handirako

Mari Domingi eta Xixuko prest daude abenduaren 24ko egun handirako. Oso lanpetuta dabilta biak azken asteetan baina tarte batean Lasarte-Oriako haurrei mezua bidali nahi izan diete Txintxarri.eus bidez.

Xixuko ahate maitagarriak aste honetan egingo ditu bisitak herriko eskoletan eta dena prest edukitzeko esaten die bideoan haurrei, eskutitzak, marrazkiak...

Abenduaren 24ean Olenzerorekin batera iritsiko dira Lasarte-Oriara Xixuko eta

Mari Domingi. Hitzordua 16:45ean izango da LoidiBarrerego frontoiaren parean. Bertan Olentzero eta Porrotx pailazoa ere egongo dira hutsik egin gabe.

Aurtengoan gainera lagun gehiago ekarriko dituzte herrira. Galtzagorri txikiekin batera handiagoak ere izango direla iragarri dute.

Ohi bezala desfilea herriko erdigunetik egingo da eta haurrek aukera izango dute Olentzero, Mari Domingi edo Xixukori eskutitzak emateko.



Galtzagorriak, Basajaun, Basandere izango dira besteak beste desfilean Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotx laguntzen.



garraio publikoa gipuzkoarren % 64ren onurarako da.

Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.



mendekotasuna duten 26.472 pertsona artatzen ditugu.

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

azken bi urteotan 1.000 lagun gehiago matrikulatu da euskaltegietan.



Gipuzkoa hondakinen % 42 birziklatzen ari da eta 2016an % 60ra iritsiko da.



Zuri esker

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa BERRIA